ANEXO II

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIA ENTITATEAREN ARTEAN SINATZEKOA, FUNTS MUSEOGRAFIKOAK KUDEATZEKO, WEBGUNEAREN BIDEZ INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA EMSIME APLIKAZIOAREN USTIAPEN BATERATUA EZARTZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN A SUSCRIBIR ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA, PARA ESTABLECER LAS BASES EN MATERIA DE EXPLOTACIÓN CONJUNTA DE LA APLICACIÓN "EMSIME", PARA LA GESTIÓN MUSEOGRÁFICA E INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN A TRAVÉS DE LA WEB.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko ……aren ….. (e) (a) n.

En Vitoria-Gasteiz, a ..… de…….. de 2026.

BILDU DIRA

Alde batetik, Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, lehenengo lehendkariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.

Bestetik, Ana del Val Sancho andrea, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua.

REUNIDOS

De una parte, Dª. Ibone Bengoetxea Otaolea, vicelehendakari primera y consejera de Cultura y Política Lingüística.

De otra, Dª. Ana del Val Sancho, Diputada Foral de Cultura y Deporte.

PARTE HARTU DUTE

Lehenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta hura ordezkatuz, ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera jardunez (18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena).

Bigarrenak, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren izenean eta hura ordezkatuz, ekainaren 30koa 152/2023 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera jardunez (152/2023 Foru Dekretua, ekainaren 30koa, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten da 2023-202 legealdirako).

INTERVIENEN

La primera, en nombre y representación de la Administración General del País Vasco, actuando en el ejercicio de sus competencias conforme a lo establecido en el artículo 6 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

La segunda, en nombre y representación del Departamento de Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, actuando en el ejercicio de sus competencias conforme a lo establecido en el Decreto Foral 152/2023, del Diputado General, de 30 de junio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava para la legislatura 2023-2027.

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación
https://egoitza.araba.eus/izapidetu/sgvfcove/
Egiaztapen kodea Código de verificación
tjCF-yCGE-KR2n-eAYP

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, bakoitzak esku hartzen duen mailan, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes se reconocen mutuamente, en la calidad en que cada una interviene, con capacidad legal para firmar el presente convenio y al efecto

HONAKO HAU AZALDU DUTE

EXPONEN:

Lehenengoa.- Hitzarmen hau bi erakundeen arteko kulturaren arloko lankidetzaren esparruan txertatzen da, zehazki, kultura-ondarea babesteko eta zabaltzeko politikei dagokienez, museo eta bildumen kudeaketan lagunduko duten eta datuak trukatzea eta webgunearen bidez jendeari zabaltzea ahalbidetuko duten sistema teknikoak ezarriz eta mantenduz.

Primero.- El presente convenio se inscribe en el marco de la colaboración en materia de cultura entre ambas instituciones, en concreto, en lo referente a las políticas de protección y difusión del patrimonio cultural a través de la implantación y mantenimiento de sistemas técnicos que ayuden en la gestión de los museos y colecciones y que permitan el intercambio de datos, así como su difusión al público a través de la web.

Bigarrena.- Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 3. Artikuluak zehazten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak museoen eta bildumen arloan dituen eskumenak. Eskumen horien artean daude, besteak beste, Euskadiko museo eta bildumetako funtsen inbentario orokorra antolatzea eta eguneratuta edukitzea, eta sistema bakar bat sarean ezar dadin sustatzea eta horren buru izatea.

Segundo.- La Ley 7 /2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi, regula en su Art. 3. las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de museos y colecciones, y entre esas competencias se encuentran las de organizar y mantener actualizado el inventario general de fondos de museos y colecciones de Euskadi; promover y liderar el establecimiento en red de un único sistema informático, así como, impulsar las labores de documentación, investigación y difusión del patrimonio. Por otra parte, los museos y colecciones para cumplir con las funciones que regula la citada Ley, deben tener inventariados sus fondos.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, EMSIME izeneko aplikazio informatiko bat garatu du, eta aplikazio horren jabea da. Aplikazio horren helburua da Euskadiko museo eta bildumen funts museografikoak dokumentatzea eta erraztea horien kudeaketarekin lotuta dauden zeregin eta jarduera guztiak.

Tercero.- El Gobierno Vasco a través del Departamento de Cultura y Política Lingüística ha desarrollado y es propietario de una aplicación informática denominada EMSIME cuya finalidad es la de documentar los fondos museográficos de los museos y colecciones de Euskadi, además de facilitar la realización de todas aquellas tareas y actividades relacionadas con la gestión de los mismos.

Laugarrena.- Dokumentazioa lanetako, neurri handi batean, oinarrizkoa da hizkuntza eta taula normalizatuak edukitzea. Horregatik, tresna horien kudeaketa funtsezkoa da EMSIMEren helburuak lortzeko: museo-funtsen inbentario orokorra egitea eta linean jartzea, eta Euskadiko

Cuarto.- La documentación se apoya en gran medida en la existencia de lenguajes y tablas normalizadas, por ello la gestión de estos instrumentos es fundamental para conseguir los objetivos de EMSIME, que son la elaboración y puesta en línea del inventario general de los fondos museográficos y la

museo eta bildumek duten ondarearen katalogo kolektiboa sortzea.

Bosgarrena.- EMSIME museoek eta bildumek gordetzen dituzten kultura-ondasunen kudeaketa erraztu dezakeen tresna da, bai eta museoen funts museografiko, dokumental eta administratiboen katalogazio eta tratamendu teknikoko prozesuak bateratzen eta horien artean informazioa trukatzen lagundu dezakeen tresna ere.

Azaldutakoa oinarri hartuta, aldeek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

1.- Katalogazio eta kudeaketa museografikoko lanen normalizazioa erraztea, bai eta informazio-trukea ere, EMSIME aplikazioa batera erabiliz.

2.- Lankidetza-oinarriak ezartzea EMSIME aplikazioan integragarriak diren tresna tekniko partekatuak sortzeko (hiztegiak, tesauroak, etab.), dokumentu-sistemaren eraginkortasun eta errentagarritasun handiena lortzeko beharrezkoak direnak.

Bigarrena.- Sistema ezartzeko baldintzak.

1.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bere gain hartzen du aplikazioaren garapenaren kostua, museoak beste sistema batzuetan informatizatuta dituen inbentarioari buruzko datuen atzerabihurketa automatizatua, baldin eta, Museoen Zentroko EMSIMEren Jarraipen Batzorde Teknikoaren iritziz, aplikazioan modu eraginkorrean txerta badaiteke, bai eta prestakuntza-ikastaroena ere.

2.- Museo edo bildumaren titularra arduratuko da aipatutako aplikazioaren funtzionamendurako

generación del catálogo colectivo del patrimonio que albergan los museos y colecciones de Euskadi.

Quinto.- EMSIME es una herramienta que puede facilitar la gestión de los bienes culturales que conservan los museos y colecciones, así como contribuir a la unificación de los procesos de catalogación y tratamiento técnico de los fondos museográficos, documentales y administrativos de los museos, y al intercambio de información entre los mismos.

En base a lo expuesto, las partes intervinientes han acordado suscribir el presente convenio que se regirá conforme a las siguientes,

CLAÚSULAS

Primera.- Objeto.

1.- Facilitar la normalización de las tareas de catalogación y gestión museográfica, así como el intercambio de información mediante la utilización conjunta de la aplicación EMSIME.

2.- Sentar las bases de una colaboración para la creación de instrumentos técnicos compartidos integrables en la aplicación EMSIME (vocabularios, tesauros, etc.), y necesarios para lograr la máxima eficacia y rentabilidad del sistema documental.

Segunda.- Condiciones de implantación del sistema.

1.- El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco asume el coste del desarrollo de la aplicación, la retroconversión automatizada de los datos referidos al inventario que el museo tenga ya informatizados en otros sistema y que, a juicio de la Comisión Técnica de Seguimiento de EMSIME del Centro de Museos, puedan integrarse de manera eficiente en la aplicación, así como de los cursos de formación.

2.- La entidad titular del museo o colección se hará cargo de la adquisición, instalación y

behar den ekipamendu informatikoa eskuratzeaz, instalatzeaz eta mantentzeaz.

Eranskinean deskribatzen da EMSIME instalatzeko eta behar bezala funtzionatzeko behar den gutxieneko ekipamendua.

3.- Museoaren edo bildumaren titularra arduratuko da EMSIMEra migratutako informazioa arazteaz eta euskarri ez-informatikoen bidez aplikazioan datuak zuzenean kargatzeaz.

Hirugarrena.- Museo eta bildumetarako laguntza teknikoa eta aplikazio informatikoaren euskarri teknikoa.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza arduratuko da museo eta bildumei laguntza teknikoa emateaz, bai eta aplikazioaren euskarri teknikoa emateaz ere, honako ekintza hauen bidez:

- Museo eta bildumei laguntza ematea, sisteman integra daitezen, datuak bihurtzeari buruzko zalantzak ebaztea, datuak iraultzea kontrolatzea eta egiaztatzea, eta erabiltzaile berriak lan-tresnan eta -metodologian prestatzea.
- Hizkuntza normalizatua koordinatzen eta kudeatzen laguntzea: termino berriak balioztatzea, taulak eguneratzea eta mantentzea.
- Programaren funtzionaltasunei, informazioaren sarrerari eta abarri buruzko laguntza eta babesa ematea sisteman sartutako museo eta bildumei.
- Sistemaren dokumentazioa egitea, eguneratzea eta mantentzea: katalogazio-eskuliburuak, prozedurak, etab.
- Obren egileen datu-base bateratu bat eguneratzeko eta mantentzeko laguntza, baita

mantenimiento del equipamiento informático necesario para el funcionamiento de la aplicación mencionada.

El equipamiento mínimo necesario para la instalación y correcto funcionamiento de EMSIME se describe en el Anexo.

3.- La depuración de la información migrada a EMSIME y la carga directa de datos en la aplicación a partir de soportes no informáticos correrá a cargo de la entidad titular del museo o colección.

Tercera.- Asistencia Técnica a los museos y colecciones y soporte técnico de la aplicación informática.

La Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal, del Departamento de Cultura y Política Lingüística se encargará de la asistencia técnica a los museos y colecciones, así como del soporte técnico de la aplicación a través de las siguiente acciones:

- Apoyo a los museos y colecciones para su integración en el sistema, resolución de dudas sobre la conversión de datos, control y verificación del volcado de datos y formación de nuevas personas usuarias en la herramienta y la metodología de trabajo.
- Apoyo y asistencia en la coordinación y gestión del lenguaje normalizado: validación de nuevos términos, actualización y mantenimiento de tablas.
- Soporte y asistencia a los museos y colecciones integrados en el sistema sobre funcionalidades del programa, introducción de la información, etc.
- Realización, actualización y mantenimiento de la documentación del sistema: manuales de catalogación, procedimientos, etc.
- Soporte para la actualización y mantenimiento de una base de datos unificada de la autoría de las obras, y de

aplikazioaren orri nagusiko gertaera nabarmenen kudeaketa.

- Aplikazioaren egokitzapen- eta bilakaera-mantentzea:
  - Aplikazioari lotuta sor daitezkeen behar berriak eta aldaketak aztertzea, diseinatzea, garatzea eta ezartzea.
  - Hardware ekipamenduarekin eta oinarrizko softwarearekin lotutako elementuen bertsioak edo konfigurazioak aldatzeak eragindako gorabeherak eta arazoak konpontzea.
- Aholkularitza eta laguntza aplikazioa erabiltzean, hainbat alderdi kontuan hartuta:
  - Tresnak erabiltzeko maila operatiboa
  - Egungo lan-prozesuak sistema berrira egokitzeko maila logikoa
  - Tresnen administrazio-maila.
- Aplikaziorako laguntza teknikoa, sor daitezkeen ingurune teknologiko informatikoak eta software integratuak, etab. eguneratzeko (Dokusi, PLATEA-Internet, Oracle, ERPI integrazio-azpiegitura, XLNetS segurtasun-sistema, Nora lokalizazio-datuak kudeatzeko sistema horizontala).

eventos destacados de la página principal de la aplicación.

- Mantenimiento adaptativo y evolutivo de la aplicación.
  - Análisis, diseño, desarrollo e implantación de pequeñas nuevas necesidades y modificaciones asociadas a la aplicación que puedan ir surgiendo.
  - Resolución de incidencias y problemas ocasionados por cambios de versiones o configuraciones de los elementos asociados al equipamiento hardware y software base.
- Asesoría y asistencia en la utilización de la aplicación contemplando diferentes aspectos:
  - Nivel operativo de utilización de herramientas
  - Nivel lógico de adecuación de los procesos de trabajo actuales al nuevo sistema
  - Nivel de administración de las herramientas.
- Soporte técnico a la aplicación en la adecuación/adaptación de la aplicación a las actualizaciones de entornos tecnológicos informáticos, actualizaciones de software integrado (DOKUSI, PLATEA-Internet, ORACLE, infraestructura de integración ERPI, sistema de seguridad XLNetS, sistema horizontal de gestión de datos de localización NORA), etc. que puedan surgir.

Laugarrena.- Katalogo Kolektiboa (MUSEOTIK)

MUSEOTIK Euskadiko museo eta bildumetan gordetzen diren funts museografikoen katalogo kolektiboa da; bertan jasotzen den informazioa EMSIMEtik ateratzen da. Internet bidez herritar ororentzat eskuragarri dago.

Cuarta.- Catálogo colectivo (MUSEOTIK)

MUSEOTIK es el catálogo colectivo de los fondos museográficos conservados en los museos y colecciones de Euskadi, cuya información se extrae de EMSIME. Está disponible para el público en general en internet.

1. Museoak edo bildumak EMSIME erabiltzen duten gainerako museo eta bildumen eskura jarriko du informazioa, eta, era berean, horien guztien informazioa eskuratu ahal izango dute arestian aipatutako katalogo kolektiboaren bidez.

2. Museoak edo bildumak, ahal duen neurrian, EMSIME aplikazioaren terminologia-estandarreko tauletako edukiak arazteko lanetan lagunduko du; horretarako, termino berriak sortzeko edo daudenak aldatzeko proposamenak Jarraipen Batzorde Teknikoari bidaliko dizkio aldian-aldian, eremuen edo tesauroen eduki-aurkibideetan.

3. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila museo eta bildumetan gordetzen diren kultura-ondasunak biltzen dituen MUSEOTIK katalogo kolektibo informatizatuaren kudeaketaz arduratuko da.

4. Lan horren emaitza geroago gehitu ahal izango da, besteak beste, "Euskariana" eta "Europeana" (Europako Kultura Ondarera online sartzeko ataria) bezalako bilatzaileetan. Horretarako, baldintza hauek hobetsiko dira:

- **LIZENTZIADUN OBJEKTU DIGITALAK**: Bildumak partekatuko dira erakunde bakoitzaren estrategia digitalak, edukien kalitatea eta egile-eskubideak kontuan hartuta, eta Europeanako Argitalpen Esparrua jarraituz. Esparru hori Europeanako Lizentzien Esparruan (Europeana 2011) jasotako eskubideen 14 aitorpenen zerrendan oinarritzen da:

  1- Jabari publikoaren marka (PDM)
  2- Egile-eskubiderik gabe – Merkataritzarako ez den erabilera soilik (NoC-NC)
  3- Egile-eskubiderik gabe – Beste lege-murrizketa ezagutu batzuk (NoC-OKLR)
  4- CC0 1.0 Jabari Publiko Unibertsalari (CC0) egindako eskaintza
  5- CC – Aintzatespena (por)

1. El museo o colección pondrá su información a disposición del resto de los museos y colecciones usuarios de EMSIME, del mismo modo que podrán acceder a la información de todos ellos a través del catálogo colectivo citado anteriormente.

2. El museo o colección colaborará, en la medida de sus posibilidades, en las tareas de depuración de contenidos de las tablas de control terminológico de la aplicación EMSIME, a través del envío periódico a la Comisión Técnica de Seguimiento de las propuestas de creación de nuevos términos o modificación de los existentes, en los índices de contenido de los campos o de los tesauros.

3. El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco se ocupará de la gestión de MUSEOTIK, el catálogo colectivo informatizado de los bienes culturales conservados en los museos y colecciones.

4. El resultado de este trabajo podrá ser incorporado posteriormente en buscadores como "Euskariana" y "Europeana" (Portal de acceso online al Patrimonio Cultural Europeo). Para ello, deberán tenerse en cuenta las siguientes condiciones:

- **OBJETOS DIGITALES CON LICENCIA**: Las colecciones se compartirán teniendo en cuenta las estrategias digitales de cada organización, la calidad de sus contenidos y los derechos de autor, siguiendo el Marco Editorial de Europeana. Este marco se basa en la relación de 14 declaraciones de derechos recogidas en el Marco Europeo de Licencias (Europeana 2011):

  1. Marca de dominio público (PDM)
  2. Sin derechos de autoría – Uso no comercial (NoC-NC)
  3. Sin derechos de autoría – Otras restricciones legales conocidas (NoC-OKLR)
  4. Oferta CC0 1.0 Dominio Público Universal (CC0)
  5. CC – Reconocimiento (por)

6- CC – Errekonozimendua, Partekatze berdina (BY-SA)
7- CC – Aintzatespena, obra eratorririk gabe (BY-ND)
8- CC – Aintzatespena, Ez-komertziala (BY-NC)
9- CC – Aitorpena, Ez-komertziala, Partekatu berdina (BY-NC-SA)
10- CC – Aintzatespena, ez-komertziala, obra eratorri gabea (BY-NC-ND)
11- Egile-eskubideekin – (InC)
12- Egile-eskubideekin – Hezkuntza-erabilera baimendua (INC-EDU)
13- Egile-eskubideekin – Europar Batasuneko artelan umezurtzak (InC-EU_OW)
14- Ebaluatu gabeko egile-eskubideak (CNE)

6. CC – Reconocimiento, Compartición idéntica (BY-SA)
7. CC – Reconocimiento sin obra derivada (BY-ND)
8. CC – Reconocimiento No Comercial (BY-NC)
9. CC – Declaración, No Comercial, Compartido idéntico (BY-NC-SA)
10. CC – Reconocimiento no comercial, obra derivada (BY-NC-ND)
11. Con derechos de autoría – (Inc)
12. Con derechos de autor – Uso educativo autorizado (INC-EDU)
13. Con derechos de autoría – Obras huérfanas de la Unión Europea (InC-EU_OW)
14. Derechos de autoría no evaluados (CNE)

Berariaz jakinarazi ezean, jadanik katalogatuta dauden objektuei ofizioz esleituko zaie lizentziarik murriztaileena: 11 – Egile-eskubideekin (InC).

Salvo comunicación expresa, a los objetos ya catalogados se les adjudicará de oficio la licencia más restrictiva: 11 – Con derechos de autoría (InC).

- **METADATUAK**: CC0 1.0 (Jabari Publikoko dedikazioa) lizentziapean edo lizentziatutzat hartuko dira, eta murrizketarik gabe berrerabili ahal izango dira, helburu komertzialak barne, 2019ko azaroaren 14an argitaratutako Europeanarekin (DEA, Data Exchange Agreement) datuak trukatzeko akordioan zehazten den bezala.

- **METADATOS**: Los metadatos generados se licenciarán o se considerarán licenciando bajo CC0 1.0 (Dedicación de Dominio Público) y serán reutilizables sin restricción, incluidos los fines comerciales, tal como se especifica en el Acuerdo de intercambio de datos con «Europeana» (DEA, Data Exchange Agreement) publicado el 14 de noviembre de 2019.

Partekatuko den informazio hori objektuak identifikatzeko oinarrizko datuak izango dira:

- Irudia
- Izenburua
- Egilea
- Museoa/ Bilduma
- Objektua/Izen arrunta (normalizatua)
- Materia eta/edo euskarria (normalizatua)
- Gaia
- Teknika (normalizatua)
- Data
- Garaia
- Neurriak
- Irudiaren lizentzia mota

La información que se compartirá serán los datos básicos para la identificación de los objetos:

- Imagen
- Título
- Autoría
- Museo/Colección
- Objeto/Nombre común (normalizado)
- Materia y/o soporte (normalizado)
- Tema
- Técnica (normalizada)
- Fecha
- Época
- Medidas
- Tipo de licencia de la imagen

Bosgarrena.- EMSIMEren erakunde erabiltzaileen sarearen Jarraipen Batzorde Teknikoa.

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du, eta, jarraipena eta interpretazioa egiteko, erakunde arteko batzorde bat eratuko du, bederatzi kidez osatua: Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren bi ordezkari, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren zerbitzu informatikoen ordezkari bat, EMSIMEren komunitateko museo edo bildumen hiru ordezkari eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru-aldundien ordezkari bana. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren ordezkariek lehendakaritza- eta idazkaritza-lanak egingo dituzte, eta, gutxienez, urtean behin deitu beharko dituzte batzordekideak, erakunde bakoitzaren titulartasun esklusiboko museoen katalogazioaren, kudeaketa museografikoaren eta informazioaren egoera ebaluatzeko, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatuko dituzte, bai eta arlo horretan bidezkoak izan daitezkeen programa osagarriak abian jartzea ere.

Nolanahi ere, sarean integratuta dauden museo-azpiegitura guztiek edukiko dute iradokizunak edo/eta hobekuntza-proposamenak bidaltzeko ahalmena. Horiek guztiak aztertuko ditu Kultura Ondare Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren Museoen Zentroak edo, horrela badagokio, Jarraipen Batzorde Teknikoak. Proposamenaren izaerak hala eskatzen badu, gaiaren arabera antolatutako berariazko mahai teknikoak osatuko dira.

Seigarrena.- Indarraldia.

1. Hitzarmen honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lau urteko indarraldia izango du. Hala ere, aurreikusitako indarraldia amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren

Quinta.- Comisión Técnica de Seguimiento de la red de instituciones usuarias de EMSIME.

El presente convenio tiene naturaleza jurídico-administrativa y de cara a su seguimiento e interpretación se constituye una comisión interistitucional compuesta por nueve miembros, dos en representación de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Gobierno Vasco, uno en representación de los servicios informáticos del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, tres en representación de los museos y colecciones que forman parte de la comunidad de EMSIME y uno en representación de cada una de las tres Diputaciones Forales de la Comunidad Autónoma Vasca. Las personas representantes de la Dirección de Patrimonio Cultural Propiedad Intelectual y Depósito Legal del Gobierno Vasco ejercerán las labores de presidencia y secretaría de la misma, obligándose a convocar, al menos una vez al año, a sus componentes de cara a evaluar el estado de situación de la catalogación, gestión museográfica y de información de los museos de titularidad exclusiva de cada institución, proponiendo en su caso, medidas correctoras y la puesta en marcha de programas complementarios que en esta materia pudieran proceder.

En todo caso, todas las infraestructuras museísticas integradas en la red estarán facultadas para enviar sugerencias y/o propuestas de mejora, que serán analizados por el Centro de Museos de la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal o, en su caso, por la Comisión Técnica de Seguimiento. Cuando la naturaleza de la propuesta así lo requiera, se constituirán mesas técnicas específicas organizadas en función de la materia.

Sexta.- Vigencia.

1. El presente Convenio surtirá efecto desde la fecha de su firma y tendrá una vigencia de cuatro años. No obstante, en cualquier momento antes de la finalización del plazo de

sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea.

2. Hitzarmena honako arrazoi hauetakoren batengatik indargabetu ahal izango da:

a) Klausula eta betebeharretako edozein modu larrian ez betetzea.
b) Alderdietako edozeinen salaketa, hiru hilabete lehenago.
c) Elkarrekiko akordioa.
d) Indarrean dagoen legerian ezarritako gainerakoak.

Zazpigarrena.- Izaera eta jurisdikzio eskuduna

1. Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du, eta Eusko Jaurlaritzari dagokio jarraipena eta interpretazioa egitea.

2. Izaera administratiboa dutenez, hitzarmena aplikatzearen inguruan sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

vigencia previsto, los firmantes del Convenio podrán acordar unánimente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

2. El convenio podrá resolverse por alguna de las siguientes causas:

a) El incumplimiento grave de cualquiera de sus cláusulas y obligaciones.
b) Denuncia de cualquiera de las partes, con una antelación de tres meses.
c) Mutuo acuerdo.
d) Las demás establecidas en la legislación vigente.

Septima.- Naturaleza y Jurisdicción competente

1. El presente convenio tiene naturaleza jurídico-administrativa, correspondiendo al Gobierno Vasco su seguimiento e interpretación.

2. Dado su carácter administrativo, los litigios que puedan suscitarse en torno a la aplicación del convenio serán sometidos a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Y en prueba de conformidad con lo previamente expuesto, firman el presente convenio por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

ANA DEL VAL SANCHO
Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Cultura y Deporte
ARABAKO FORU ALDUNDIA/
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

IBONE BENGOETXEA OTAOLEA
Lehenengo lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua
Vicelehendakari primera y Consejera de Cultura y Política Lingüística
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ERANSKINA

EMSIME aplikazioa instalatzeko eta zuzen funtzionatzeko gutxieneko ekipamendua:

ANEXO

Equipamiento mínimo necesario para el correcto funcionamiento de EMSIME:

1.- Ordenagailu pertsonala, ezaugarri hauekin:
- Prozesadorea: Intel i3 / Ryzen 3 edo handiagoa
- RAM memoria: 8 GB edo gehiago
- Diskoa: Gutxienez 10 GB libre erabilgarri
- Monitorea: 1080p gutxienez

2.- Internet nabigatzailea (eguneratutako bertsioekin): Mozilla Firefox, Google Chrome, Edge.
3. Interneteko konexioa, gutxieneko banda-zabalera honekin: 10 Mbps (egonkorra), eta gomendatutako banda-zabalera: 50 Mbps edo gehiago
.

1.- Ordenador personal con estas características:
- Procesador: Intel i3 / Ryzen 3 o superior
- RAM: 8 GB o más
- Disco: Mínimo de 10 GB disponibles libres
- Monitor: 1080p mínimo

2.- Navegador web (versiones actualizadas): Mozilla Firefox, Google Chrome, Edge

3.- Conexión a Internet, con un ancho de banda mínimo: 10 Mbps (estable) y un ancho recomendado: 50 Mbps o más.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.13 08:34:44 Z